

MOZIO ARRUNTA, HERRERAKO TREN GELTOKI BERRIAN GERTATZEN ARI DIREN ARRISKU EGOERAK ETA ZARATAK DIRELA ETA

EH BILDU udal taldeko bozeramaile Reyes Carrere Zabalak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, honako MOZIO ARRUNT hau aurkezten du, Herrerako tren geltoki berrian, behar ez den tokitik trenbideak igarotzeagatik gertatzen ari diren arrisku egoerak eta zaratak direla eta.

JUSTIFIKAZIOA

Herrera auzoan trenbide berria eraikitzen ari da Adif erakundea, eta horren eraginez aldaketa handiak izan dituzte nasetara iristeko bideek, luzeago eginez trenbidearen alde batetik bestera igarotzeko behar den denbora. Lehenago ere aipatu izan dugunez, Adifek ez ditu behar bezala adierazi aldaketa horiek, eta, sarritan, auzokoak ez diren erabiltzaileak galduta ibili izan dira, noraezean, baita espaloirik gabeko errepedean zehar ere.

Bada, hori gutxi ez eta orain are egoera arriskutsuagoa gertatzen ari da, trenbidearen alde batetik bestera joateko, Herrerako plazatik igaro beharrean, zuzenean trenbideak igarotzen ari baitira erabiltzaile ugari, egunero eta aste osoan zehar. Egoera arriskutsu horren beldurrez edo, Renfeko trenetako gidariak bozina jotzen dute geltokira iristen ari direnean. Jakina, bozina horiek oso indartsuak eta zaratatsuak dira, eta bizilagunak kexu azaldu dira, bozina soinu horiek aztoratzen eta ernegatzen dituztelako.

Horiek horrela, EH BILDU udal taldeak honako mozio arrunt hau aurkezten du:

MOZIOA ARRUNTA

1.- Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen die ADIF eta RENFE erakundeei har ditzatela neurriak Herrerako tren geltoki berrian, behar ez den tokitik trenbideak igarotzeagatik gertatzen ari diren arrisku egoerak saihesteko, erabiltzaileen segurtasuna eta bizilagunen lasaitasuna bermatze aldera.

Donostian, 2023ko urtarrilaren 5ean

Reyes Carrere Zabala
EH Bildu udal taldearen bozeramalea